

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3260

21/2019 DEKRETUA, ekainaren 25ekoa, lehendakariarena, Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat aldatzeko dena.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 5. artikulua ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da ordezkari handiena duten sindikatuen konfederazio eta erakundeek batzordean dituzten kideak izendatzea, erakunde horiek beren ordezkariak aukeratu ondoren; bestalde, lege horren 7. artikulua arabera, batzordeko kideen agintaldia lau urterako izango da, baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Legeak agintzen du, baita ere, batzordean ordezkariak duten erakunde, korporazio edo entitateek titular edo ordezkari izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dutela. Izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkariak dituzten pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta aipatutako legearen 7. artikuluaekin bat etorritik, Unión General de Trabajadores / UGTk, lehendakariaren maiatzaren 9ko 16/2019 Dekretuaren bitartez izendatutako kide bat aldatu du eta aukeraketa berria egin du.

Horren ondorioz, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xuria Arza Vélez andrea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ordezkari izendatzea, UGT erakunde sindikalak aukeratu ondoren, Arantza Ruiz Huidobro andrearen ordezkari.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 25ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.